



◆ FUTBOLA

Gorengo mailako taldeak 3-2 galdu zuen

Hernanik 3 eta 2 galdu zuen larunbatean Aurrera Ondarroa taldearen kontra. Hernaniarrek ez zuten partidua behar bezain ondo hasi eta 10 minutu pasa zirenerako ondarrutarrek 2 gol sartu zituzten. Hasiera makala izaki, zaila egin zitzaien txuri berdeei egoerari buelta ematea. ||

◆ SASKIBALDIA

Hernanik maila eman arren galdu egin zuen denboraldiko lehen partidua

Teklan Hernani 45

La Salle 63

HERNANIKO senior mailako Teklan taldeak galdu egin du asteburuan La Salle talderen kontrako partidua, 45 eta 63. Denboraldiko aurreneko partidua izan dute hernaniarrek eta nahiz eta aurretik hasi La Sallekoak nagusitu ziren.

Aurreneko laurdena markagailua etxekoen alde zela bukatu zen, baina bigarren eta hirugarren laurdenetan La Sallekoek eraso gehienetan asmatu zuten. Azken laurdenean, dagoeneko ezer galtzeko ez zela, jokaldietan arriskatu ziren hernaniarrek eta behintzat markagailuan alde txikitzea lortu zuten.

Kontuan izan behar da La



Hernaniarrek ondo hasi ziren aurreneko laurdenean baina La Salle nagusitu zen azkenean.

Salle taldea joan den denboraldian mailaz igotzeko borrokan aritu zela; eta herna-

niarrek hasi berriak direla. Taldearen arduradunek talde polita osatu dela uste dute

eta lan eginda emaitzak etorriko direla nabarmendu dute. ||

◆ PELOTA

Esnaleta eta Gorrotxategi Aginaga torneoko txapeldunak

Iñaki Esnaleta eta Aitor Gorrotxategi irabazi dute, nagusi mailan, Aginaga torneo. Lizaso eta Pebeten kontra aritu ziren eta sasoi onean daudela erakutsi zuten, partidua markagailua 22 eta 08 zela bukatu baitzen. Jubenil mailan, Eneko Azpitarte ere iritsi zen finalera, Arruti bikote zuela, baina 6 eta 22 galdu zuten, Santxo eta Ostolazaren kontra. ||

◆ EUROAGINDUA

Unai Fano Boys d'Arcy-ko espetxean sartu dute

Askatasunak jakitera eman duenez, joan den asteartean Frantzia atxilotutako Unai Fano hernaniarra Frantziako Boys d'Arcy espetxean sartu dute, ostiralean Pariseko epailearen aurretik pasa ondoren. Iturri beraren arabera, Fanok bi euroagindu jaso ditu Espainiako justiziaren eskutik: bata Garzon epaileak eskatuta, Batasuna-EHAK auziaren-gatik; eta bestea Ismael Moreno epaileak eskatutakoa, Frantzia izandako atxilotetaren harira. Askatasunak azaldu duenez, urriaren 3an euroaginduaren berri emango dio epaileak. ||

Kontzentrazioa deitu du gaurko CCOO sindikatuak, lan istripuak salatzeko

Sindikatuak salatu du etorkin gazteek eraikuntza arloans dituzten lan baldintzak. Kontzentrazioa gaur eguerdiko 12:00etan izango da, Plazan.

CCOO sindikatuak kontzentrazioa deitu du gaurko, lan istripuak salatzeko. Joan den ostegunean lan istripua izan zen Zaharren Egoitza haunditzeko obretan. 20 urteko Portugaleko gizonezko bat 5 metroko altueratik erori zen, CCOOek azaldu duenez. Kronikak jakin ahal izan duenez, gizonezkoak hanka eta eskumuturra hautsi ditu istri-

puaren ondorioz.

Lan baldintzak

Sindikatuak salatu du konstruktzioan dauden lan baldintzak: «etenik gabeko lana egiten da konstruktzioa bezalako lan arriskutsuetan eta etorkin gazteak bezalako gizarte sektoreak behartzen dituzte beren bizia etengabe arriskuan jartzera. Sektore honek jaso duen

prebentzio heziketa urria eta komunikatzeko dituzten arazok ekartzen dituzte, horrelako istripuak». Horrekin batera dio «konstruktorek erosoago sentitzen» direla istripuak etorkinek izaten dituztenean, «beste herrialdeetan bizi diren senitarkoek zailtasunak izango baituzte prozesu judizial bat hasteko».

CCOOK gizarte estrukturu-

rako arazo baten aurrean gaudela dio, eta instituzioen jarraera salatu du, «oraindik ere inspektzioak eta fiskalen ekimenak eskasak direlako. Ez dago eredu zigorrik erakusten duena, lan istripu baten atzetan prebentzio arloko huts egitea dagoela».

Kontzentrazioa gaur eguerdiko 12:00etan izango da, Gudarien plazan. ||

GARAYAR AVTOBYSAK

Zerbitzu diskrezionalak (ESKOLARRAK)

Autobus zerbitzua Linea erregularrek

Hernani - Aiete - Donostia - Aiete - Hernani
Andoain - Urnieta - Hernani - Donostia - Hernani - Urnieta - Andoain

Jaregi bailara 17 - Tel.: 943 556 650
Fax: 943 331 208 e-maila: mgarayar@lucilnet.es 20170 Hernani (Gipuzkoa)

Allianz (Allianz logo)

ASEGURUAK

- bitzita
- istripuak -
- ibigailuak -
- eluzak -
- komertzioak
- enpresaak -
- ardura zibila
- finantza enpresaak -
- inbertituzioak -

agustin ezponda irizar agentzia

Bulego berria:
Nagusia, 13
Telf.: 943 55 73 26
Faxa: 943 33 57 71

HERNANI ENGLISH

HIZKUNTZAK

(Gure Ingeleselaxa)

Rebeka D., Ibai Z., Jon I. eta Maki A.
ZORIONAK FIRST ATERA DUZUELAKO

MATRIKULA IREKITA IRAILA OSOAN

- ORDUTEGIA: 12:00 - 13:30
18:30 - 20:00

Deitu Alan/Joe: 943 33 11 08
Kale Nagusia 41 - 1

TELEFONOAK ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 943 248900 ● **DYA:** 943 464622 ● **Autobusak:** Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa:** 943 006666 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
● **FARMAZIAK** ● **Egunez:** **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793 ● **Gauz:** **Correa** Perkaiztegi 8 - 943 336022

EGURALDIA
GAUR Gaur San Miguel egunean, giro eguzkitsua izango da. Goizean fresko egingo du baina tenperatura atsegina izango da egunean zehar.

BIHAR Giroa goibelduko da eta zirimiria egingo du. Haizeak ipar mendebaldetik joko du, eta ondorioz tenperatura zertxobait jaitsiko da. (euskaime)



'Iñaki Salvador-Ainara Ortega Quartet'-en emanaldia izan zen larunbat gauetan labaderoan.

Leokako labaderoa kontzertu areto bihurtu zen larunbat iluntzean

Udal Berdintasun Arloak antolatu zuen kontzertua Jabetze Eskolen ikasturte berriari hasiera emateko.

LEOKAKO labaderoa emanaldietarako leku aproposa dela erakutsi zuten *Iñaki Salvador-Ainara Ortega Quartet* taldekoek. Argiztapenak eta inguratutako jendeak lekua goxatu zuten, eta Ainara Ortega abeslari hernaniarrak adierazitakoaren arabera, primerako sententzioak izan zituzten larunbat gaueko emanaldian. Kontzertuan autore ezagunen abestiak entzun ahal izan ziren: Serrat, Silvio Rodriguez, Pablo Milanes, Benito Lertxundi, Mikel Laboa eta beste hainbatena; eta gerturatuko jendea hunkitu ere egin zen zenbait piezekin. Musikaz gain, Ana Pimentak irakurritako olerkiak ere entzun ahal izan ziren; asko emakumei buruzkoak.

Kontzertua Udaletxeko Berdintasun Arloak antolatu zuen, Jabetze Eskolei hasiera emateko. Jabetze Eskolak emakumei zuzendutako tailerrak dira, gai ezberdinak lantzen dituztenak. Aurtengo ikasturtean, feminismoaren historia, antzerkia, emakume literatura eta sedukzioaren gaiak landuko dituzte Jabetze Eskoletan. II



Ana Pimenta aktoreak olerkiak irakurri zituen.

KIROLA - ASTEBURUKO EMAITZAK

FUTBOLA		PELOTA-Gipuzkoako Txapelketa			
Gorengo maila	Aurrera Ondarroa-Hernani	3-2	Kadeteak Aurrera Saiaz/Lujanbio-Lopez		
Bigarren regionala	Hernani-Asoleus	2-0	Kadeteak Etxenike-Elorza/Goierri		
Emakumezkoen Liga	Tourgin-Hernani	1-0	Kadeteak Artola-Etxegoien/Beloki		
Jubenila. Liga nazionala.	Hernani-Ariznabarra	4-0	Jubenilak Arrieta-Lizeaga/Erniope		
Jubenila. Lehenengo maila.	Segura Goierri-Hernani	0-2	Jubenilak Aretxabaleta/Noble-Zapiain		
Kadeteak. Ohorezko maila	Sanse-Hernani	1-1	Jubenilak Aurrera Saiaz/Esnal-Gorrotxategi		
Kadeteak. Lehengo maila.	Hernani-Euskalduna	0-1	Jubenilak Bearzana/Ojuel-San Sebastian		
Kadeteak. F-11	Luberri-Hernani	0-5	PELOTA-Aginako Torneoa		
Infantilak. Ohorezko maila	Ostadar-Hernani	2-2	Jubenilak Eneko Aizpitarte-Arruti/Santxo-Ostolaza	06-22	
Infantil Txiki	Hernani-Real Union	2-3	Seniorrak Iñaki Esnal-Aitor Gorrotxategi/Lizaso-Pebet	22-08	
ARETO FUTBOLA		SASKIBALOA			
2. dibisioa	Yone Boutique-Denak taberna	4-1	Seniorrak (1. regionala)	Teklan Laser H.K.E-La Salle	45-63
			Kadeteak (2. dibisioa)	Hernani-Arrasate	73-38

❖ IPUI KONTALARIA

Ipui kontalaria bihar liburutegian

Ipuiaren ordua saioen barruan bihar Lur Korta ipui kontalaria izango da Udal Liburutegian. Beti bezala bi saio izango dira: arratsaldeko 17:30etan, 3 eta 4 urteko haurrentzat; eta arratsaldeko 18:00etan, 5 eta 7 urteko haurrentzat. II

❖ HAURRENTZAKO TAILERRAK

Haurrentzako tailerrak auzoetan

Auzoetan haurrentzako tailerrak izaten dira ikasturtean zehar. Biteri kultur etxetik jakinarazi dute urriaren hasiko direla. Antzolian eta Elizatxon urriaren 2an hasiko dira; Portun urriaren 1ean; Ereñotzun urriaren 7an; eta Zikuñagan urriaren 3an. Tailerrak 5 eta 12 urte bitarteko haurrentzat dira eta parte hartzeko auzo elkarteetan eman behar da izena. II

❖ MENDIRIZ MENDI

Pico Murciara asteburuan

Mendiriz Mendi elkarte asteburu pasako irteera antolatu du urriaren 4 eta 5erako. Palentziako Pico Murciara joango dira (2.342 m.). Bazkide ez direnek 60 euro ordaindu beharko dute joateko eta bazkide direnek 50. Prezioan sartzen da, bidaia, afaria, gosaria eta lo egitea. Izena osteguna aurretik eman behar da. II

Eskelek

Eskelek ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† ASCENSIO INDAKOETXEA SALABERRIA

JAUNA
Atzo hil zen 68 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -

Haren emazte ohia: Pepi Iturria; seme-alabak: Koro (†), Arantxa eta Ricardo; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otowitz bat eskatzen dizue eta arren etor zaitezte **BIHAR, ASTEARTEA** arratsaldeko **SEIRETAN, Ereñotzuko ANTONIO DEUNAREN** parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2008ko irailaren 29an

Helbidea: Ereñotzu, 20-1-Esk.

Oharra: Gorpua HERNANIKO ORBEGOZO EHORIZKETA TANATORIOAN egongo da bihar, asteartea, goizeko 09:00ak arte.

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Alokairuan hartzeko pisu bila gabilza. Bi neska euskaldun arduratsu gara. Deitu: 671 351 927.

Magisteritzako ikasle bat behar da 3. mailako ikasle bati klaseak emateko. Deitu: 677 724 771

Etxea salgai Hernaniko kaxkoan (eraikin berria, 10 urte) + trasteroa.

Deitu: 00 33 559 262 572 / 659 977 096

Etxea salgai Kaleras auzoan. 2 gelako etxe polita, eguzkitsua eta ondo kokatuta.

Deitu: 619 813 357.

Gela baten bila nabil (300 euroko alokairua gehienez). Deitu: 696 166 110

Taberna salgai Hernaniko kaxkoan 80m2 + almazena 80m2. Deitu: 607 914 938 / 669 977 139.

Mugimendua jostailu. Mugimendu adierazgarrien lantegia haurrentzat. Talde txikiak, banakako arreta. SASOIKO, 943 33 11 83/ 656 721 492 (Josune Goikoetxea).

Gimnasia Kontziente bateratzailea. Ariketak hurrunkera naturalean, amasketa, erlaxazioa, estresa nola saihestu eta nola tratatu... SASOIKO (Marieluts 4 behe). 943 33 11 83 - 656 72 14 92 (Josune Goikoetxea)

Gimnasia Orekatua HAURDUNENTZAT. Haurdunaldia eta erditzea ondo garatzeko.

Haurraren garapena osasuntsua eta zoriotsua izateko. SASOIKO. Deitu 943 33 11 83 - 656 7214 92 (Josune Goikoetxea)

BIDEA masajeak. Santa Barbara auzoa. Tel.: 656 78 64 15 (aurretik deitu).

Xanti Masajista. Kirol masajea, TP de Cyriax, kiropraxia, osteopatia xamurra, bioaktibadore neurologikoa, kinesiologia, reflexologia. Deitu: 943 33 07 35 (Lizeaga, 2 P- 1 B).

Yolanda estetika zentrua. Argi zapaldu bidezko depilazioa (azken berrikuntza), mantxa eta *Kuperros*. Bibrazio bidezko terapiarekin egindako gorputz tratamenduak eta "vacumterapia". Haserako eskaintza. Froga dohainik. Atzieta 2, behe. Tel. 943 55 32 78.

Argia zentroa. Masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, erreflejo ajustea eta berbebrala, kromoterapia, drainaje linfatikoa... Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, gorputz eta aurpegi tratamenduak, oinen eta eskuen estetika. Eskatu ezazu programa informatiboa. Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)